



ALKATE DEKRETUA

GIZARTE LANGILEA BITARTEKO FUNTZIONARIO GISA HAUTATZEKO BEHIN BETIKO EMAITZAK ONARTUZ ETA LEHEN HAUTAGAIAREN IZENDAPENA BURUTUZ

IKUSITA Anoetako Udalean hutsik dagoen gizarte langile lanpostua betetzeko egin den hautaketa prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratu direla udal web orrian.

Alkateari dagozkion eskuduntzez baliatuz,

EBATZI DUT:

BAT: Gizarte Langilea bitarteko funtzionario gisa hautatzeko prozesuaren BEHIN BETIKO EMAITZAK onartzea, jarraian atxikitu den taulan jaso den eran.

BI: Hurrenkeran lehen gelditu den hautagaiari, hau da, Iker Uson Gonzalez jaunari, eskatzea, oinarrien hamargarren atalean adierazi bezala, **2 lan eguneko epean**, oinarrien hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duten egiaztagiriak aurkez ditzan, batez ere, 3.5 eta 3.6 atalak, gainerakoak aurkeztuta baitaude.

HIRU: Agiri horiek epe barruan aurkeztuz gero, Iker Uson Gonzalez jauna izendatzea Anoetako Udaleko gizarte langile bitarteko funtzionario gisa, izendapen honen iraupena Udalak plaza behin betiko hornitu arte luzatuko delarik.

LAU: Adierazitako epean, agiriak aurkeztu ezean edo eskatutako baldintzak bete ezean, Udalak ezingo du izendatu eta baliorik gabe geratuko dira pertsona horri dagozkion jardun guztiak, eta behin betiko emaitzen zerrendan hurrenkeran hurrengo den hautagaiari egingo zaio eskaintza.

Anoetan, 2019ko abenduaren 27an.

